



KANPAINAK (2023)

Argi eduki behar dugu 2 kontzeptu desberdin daudela, izen-ematea eta progresibitatea. Progresibitatea berdina da kanpaina guztientzat, dokumentazioa berdina eskatzen da. Aldiz, izen-ematea desberdina izan daiteke eta bakoitzak bere dokumentazio espezifikoa eskatu. Laburbilduz:

a) Progresibitatea... Ordenantzaren arabera, progresibitatearen eskaera, izen-ematearen epe berdinean eta izen-ematea egiten den toki berberan eskatu behar dute. Erregistratzeko orduan, kanpaina kudeatzen duen sailera bideratu.

Arretan sartzekoan, Diruzaintza-Soff aukera markatu.

b) Izen-emateak

b.1) Gazteria

- **Familia Gunea.** Zerbikateko PFAM fitxa. Izen-ematea irailaren 14tik-28ra
 - Izen-ematea eskaera + banketxeko kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria + Errenterian erroldatua ez badago, 2023-2024 ikasturteko eskola agiria. EZ da erregistratu behar, bakarrik jaso eta karpeta utzi.
 - Progresibitatea guk erregistratu behar dugu Gazteriara bideratuz.
- **Ludotekak...** Zerbikateko PLUD fitxa. Guk ez dugu ezer jaso behar, dena ludoteka bertan egingo dute.
- **Gaztelekuak...** Zerbikateko PGAZ fitxa. Guk ez dugu ezer jaso behar, dena gazteleku bertan egingo dute.
- **Kuadrillategi...** Zerbikateko PKUA fitxa. Guk ez dugu ezer jaso behar, gazteria@errenteria posta elektronikora bidali behar dute.

b.2) Hezkuntza

- **Uztargi Haurreskolako Jangela...** Zerbikateko ZIZE fitxa
 - Izen-ematea haurreskola bertan egin behar dute. Guk ez dugu jaso behar.
 - Progresibitatea guk erregistratu behar dugu Hezkuntzara bideratuz. (Salbuespena da)

b.3) Berdintasuna

- **Eskola Feminista...** Zerbikateko ZIZE fitxa. Izen-ematea irailaren 22-urriak 2
 - Izen-ematea ZU!n erregistratu behar da
 - Progresibitatea ez dago, ikastaroak doan dira eta.
- **Auzoetako emakumeen elkarteetako ikastaroak...** izen-emateak irailaren 19,20,21
 - Izen-emateak elkarte berean egin behar dira.
 - Progresibitatea ez dago, elkartean zuzenean ordaintzen dute beraiek erabakitakoa.

b.4) Hizkuntza Politika

- **Euskaltegia**
 - Izen-ematea eta progresibitatea beraiek kudeatzen dute. Guk ez dugu ezer egin behar.
 - Udal Euskaltegia.... irailaren 23a arte
 - Xenpelar AEK.... irailaren 30a arte
- **Bertso-Eskola...** Zerbikateko ZIZE fitxa... Izen-ematea irailaren 1-30
 - Izen-ematea eta progresibitatea online egin behar dute. Guk ez dugu ezer egin behar.

b.5) Liburutegia

- Udal Liburutegiko eskaintzetan parte-hartzeko izen-ematea... irailaren 13-23